DILIGENCIA: Para hacer constar que el presente documento corresponde a la 2ª aprobación inicial del expediente de 3ª Modificación del Plan Especial de Ordenación del Puerto de Bermeo, llevada a cabo mediante Orden de 13 de diciembre de 2022, del Consejero de Planificación Territorial, Vivienda y Transportes.



**2.** Azpieremu horretan SZPS_B01_ED1 eraikina eraiki daiteke. Horrek honako xede hau du: euskarri eraikia behar duten baimendutako jarduerak barne hartzea. Euskarri horren gehieneko lerrokatzeak zerako planoan zehazten dira, “Eraikuntzaren lerrokatzeak eta sestrak” deritzon P-4 planoan.

**3.** Guztira honako sabai-neurri hau dauka zerak, SZPS_B01 azpieremuan eraiki daitekeen sestratik gorako zuzkidura-eraikigarritasun fisikoak: 2.395,06 $m^2$.

**4.** Azpieremu horretan eraikitzen den eraikinak edo eraikinek beheko solairu bat izango dute eta, hala balegokio, solairu arrunt bat. Horren teilatu-hegalaren garaiera gehienez 9 metrokoa izango da. Bestalde, aipatutako garaieraren gainean honako elementu hauek baino ezin dira gauzatu: batetik, beheragoko kotan dauden erabileren funtzionaltasunarentzat eraikitakoak; eta, bestetik, aipatutako erabileren adierazgarri eta ikoniko direnak. Garaierari buruz, azkenik, puntu honetatik aurrera zenbatuko da: Iparraldeko kaiaren sestrak eta eraikin aurrearen plano bertikalek bat egiten dutenetik.

**5.** Azpieremu horretan, zenbait eraikin daude. Horrek mugakide du SZNR_B01 azpieremua, ur-nahiz jolas-erabileretarako baliatzen dena, eta beste zenbait eraikin daude hor. Horien guztien kokapenari eta emaitza formalari eutsiko dion paisaia-zein arkitektura-kalitatea bermatzeko asmoz, bertan eraikuntzarik egin nahi bada, Bermeoko Udalera jo beharko da obretako lizentzia eman baino lehen. Udalean, bi azpieremuen inguruko xehetasun-azterketa bat aurkeztu beharko da.

**6.** Xehetasun-azterketa horrek honako alde hauek jaso beharko ditu: eraikinetako obren eta hirigintza portu-obren alderdien zein ezaugarrien arautzea, hala estetikari nola osaerari begira; eta hiri-elementuen erregulatzea, bi azpieremuetako eraikinetako inguruaren osagarri balira. Xehetasun-azterketa horrek eranskin bat izango du, zehazki arauzkoa izan gabe, eta, bertan, modu orientagarrian solairuen, altxaeren eta atalen ikuspegi bat agertu beharko da. Gutxienez 3D-ko ikuspuntu konikoa hartzen duten hiru aurkezpen egon beharko dute, eta horiek guztiek renderizatu eta osatuko dituzte Bermeoko portuko ikuspuntu guztiak. Hortaz, irudien bidez adieraziko da eraikinaren paisaia eta bere arkitektura-edukia.

Aitatutako eranskina –gaitutako teknikari batek berretsita- gehitu beharko da aurretiaz aipatutako xehetasun-azterketaren dokumentuen artean. Eranskina arauzkoa da. Azkenik, eskumena duen hirigintza udal-organoak hori bideratu eta aitortu beharko du.

## ART.6.1.3. HIRIGINTZA-ARAUAK: UR- NAHIZ JOLAS-EREBILEREN AZPIEREMUA. SZNR_B01

**1.** Plan berezi honen kalifikazio xehatuak ezarritako SZNR_B01 azpieremua hemen dago: Iparraldeko kaiako ertzan; eta Bermeoko portu zaharreko dartsena biltzen duen harri-lubetako kaiaren zatian. Hori guztia “Kalifikazio xehatua” deritzon P-2 planoan azaltzen da.

Azpieremu horren erabilera nagusiak zera dira, ur- nahiz jolas-erabilpenak, eta halaxe azaltzen da 2/2018 Legearen 12. artikuluan, Euskadiko Portuei eta Itsas Garrioenaren barruan. Erabilera horren azalpenean aipatutako jarduera guztiak bete daitezke. Era berean, azpieremu horretan, Kapitaintzari dagokion erabilera baimentzen da.

EGINBIDEA: Jasota gera dadin dokumentu hau dagokiola Bermeoko Portua Antolatzeko Plan Bereziaren 3. aldaketaren espedientearen hasierako 2. onespenari. Aldaketa hori Lurralde Plangintza, Etxebizitza eta Garraioetako sailburuaren 2022ko abenduaren 13ko Aginduaren bidez egin zen.
DILIGENCIA: Para hacer constar que el presente documento corresponde a la 2ª aprobación inicial del expediente de 3ª Modificación del Plan Especial de Ordenación del Puerto de Bermeo, llevada a cabo mediante Orden de 13 de diciembre de 2022, del Consejero de Planificación Territorial, Vivienda y Transportes.

**2.** Azpieremu horretan, Kapitaintzaren eraikina eraiki daiteke, bai eta SZNR_B01_ED1 eraikina ere. Azken eraikin horrek barne hartuko ditu ur- nahiz jolas-erabilerei lotutako jarduerak, zeinek euskarri eraikia behar duten. Horren gehieneko lerrokatzeak “Lerrokatzeak eta sestrak” deritzon P-4 planoan zehazten dira.

**3.** Guztira honako sabai-neurri hau dauka zerak, SZNR_B01 azpieremuan eraiki daitekeen sestratik gorako zuzkidura-eraikigarritasun fisikoak: 5.404,90 $m^2$.

**4.** Azpieremu horretan eraikitako eraikinak edo eraikinek beheko solairu bat izango dute eta, hala balegokio, solairu arrunt bat. Horren teilatu-hegalaren garaiera gehienez 9 metrokoa izango da. Bestalde, aipatutako garaieraren gainean honako elementu hauek baino ezin dira gauzatu: batetik, beheragoko kotan dauden erabileren funtzionaltasunarentzat eraikitakoak; eta, bestetik, aipatutako erabileren adierazgarri eta ikoniko direnak. Garaierari buruz, azkenik, puntu honetatik aurrera zenbatuko da: Iparraldeko kaiaren sestrak eta eraikin aurrearen plano bertikalek bat egiten dutenetik.

**5.** Azpieremu horretan, zenbait eraikin daude. Horrek mugakide du SZPS_B01 azpieremua, arrantza-erabileretarako baliatzen dena, eta beste zenbait eraikin daude hor. Horien guztien kokapenari eta emaitza formalari eutsiko dion paisaia-zein arkitektura-kalitatea bermatzeko asmoz, bertan eraikuntzarik egin nahi bada, Bermeoko Udalera jo beharko da obretako lizentzia eman baino lehen. Udalean, bi azpieremuen inguruko xehetasun-azterketa bat aurkeztu beharko da.

**6.** Xehetasun-azterketa horrek honako alde hauek jaso beharko ditu: eraikinetako obren eta hirigintza portu-obren alderdien zein ezaugarrien arautzea, hala estetikari nola osaerari begira; eta hiri-elementuen erregulatzea, bi azpieremuetako eraikinetako inguruaren osagarri balira. Xehetasun-azterketa horrek eranskin bat izango du, zorrozki arauzkoa izan gabe, eta, bertan, modu orientagarrian solairuen, altxaeren eta atalen ikuspegi bat agertu beharko da. Gutxienez 3D-ko ikuspuntu konikoa hartzen duten hiru aurkezpen egon beharko dute, eta horiek guztiek renderizatu eta osatuko dituzte Bermeoko portuko ikuspuntu guztiak. Hortaz, irudien bidez adieraziko da eraikinaren paisaia eta bere arkitektura-edukia.

Aitatutako eranskina –gaitutako teknikari batek berretsita- gehitu beharko da aurretiaz aipatutako xehetasun-azterketaren dokumentuen artean. Eranskina arauzkoa da. Azkenik, eskumena duen hirigintza udal-organoak hori bideratu eta aitortu beharko du.

## ART.6.1.4. BARATOKIAREN AZPIEREMUKO HIRIGINTZA-ARAUAK. SZVR_B01

**1.** Plan berezi honen kalifikaxio xehatuak baratokiaren azpieremua ezartzen du; esan nahi baita SZVR_B01. Hori Baratokia kaiako ertzan dago; hain zuzen ere, oraingo lehorreratzeko orgek betetzen duten azaleran. Aurretik aipatutakoa “Kalifikazio xehatua” deritzon P-2 planoan zehazten da.

Azpieremu horren arrantza-erabilera nagusia zeran azaltzen da, industria- eta merkataritza-erabilerei dagokien azalpenean. Halaxe zehazten da 2/2018 Legearen 12.e) artikuluan, Euskadiko Portuei eta Itsas Garraioenaren barruan. Esparru horretan, ontziak doitzeko eta ontzi txikiak konpontzeko baimena dago.

EGINBIDEA: Jasota gera dadin dokumentu hau dagokiola Bermeoko Portua Antolatzeko Plan Bereziaren 3. aldaketaren espedientearen hasierako 2. onespenari. Aldaketa hori Lurralde Plangintza, Etxebizitza eta Garraioetako sailburuaren 2022ko abenduaren 13ko Aginduaren bidez egin zen.
DILIGENCIA: Para hacer constar que el presente documento corresponde a la 2ª aprobación inicial del expediente de 3ª Modificación del Plan Especial de Ordenación del Puerto de Bermeo, llevada a cabo mediante Orden de 13 de diciembre de 2022, del Consejero de Planificación Territorial, Vivienda y Transportes.



**2.** SZVR_B01 azpieremuan, honako jarduera hau jotzen da erabilera nagusitzat: orain lanean ari diren 6 lehorreratzeko orgen ekintza.

**3.** Ezin da eraikinik eraiki. Bestalde, tresnak uzteko baimena ematen da, izan higikorrak edo ez izan; esate baterako, garabiak edo travel lift-ak. Baimentzen dira, halaber, eraikitze txikiak, baldin eta jasotzeko diren elementuen tresna elektrikoak babesten badituzte. Horrekin batera, bestelako lanabesak zein hornidura baliatzeko baimena dago; horien artean, 50.000 litroko gehieneko biltegiratze-ahalmena duen gordailu eta erregaien hornikuntza gune bat.

### ART.6.1.5. HIRIGINTZA-ARAUAK: INDUSTRIA- ETA MERKATARITZA-ERABILEREN AZPIEREMUA SZIC_B01

**1.** Plan berezi honen kalifikazio xehatuak SZIC_B01 azpieremua ezartzen du. Hori Matxikorta kaiako ertzan dago, “Kalifikazio xehatua” deritzon P-2 planoan aipatutakoaren arabera.

Azpieremu horren erabilera nagusiak zera dira: industria nahiz merkataritzakoak. Halaxe agertzen da 2/2018 Legearen 12. artikuluan, Euskadiko Portuei eta Itsas Garraioarenaren barruan. Baimentzen da, horretarako duen lehentasunez, arraina prozesatzeko izozgailutarako plantaren jarduera.

**2.** Azpieremu horretan, baimena dago SZIC_B01_ED1 erakina eraikitzeko; horrek izozgailutarako plantaren jarduera hartuko du barne. Orobat, ontzi txikien lehorreko marinako erabilera baimentzen da. Horren gehieneko lerrokatzeak “Lerrokatzeak eta sestrak” deritzon P-4 planoan zehazten dira.

**3.** Guztira honako sabai-neurri hau dauka zerak, SZIC_B01 azpieremuan eraiki daitekeen sestratik gorako zuzkidura-eraikigarritasun fisikoak: 5.005,52 m$^2$.

**4.** Azpieremu horretan eraikitako eraikinak beheko solairu bat izango du eta, hala balegokio, solairu arrunt bat. Horren teilatu-hegalaren garaiera gehienez 9 metrokoa izango da. Bestalde, aipatutako garaieraren gainean honako elementu hauek baino ezin dira gauzatu: batetik, barne hartzen dituen erabileren funtzionaltasunarentzat eraikitakoak; eta, bestetik, aipatutako erabileren adierazgarri eta ikoniko direnak. Garaierari buruz, azkenik, puntu honetatik aurrera zenbatuko da: Matxikorta kaiaren sestrak eta eraikin aurrearen plano bertikalek bat egiten dutenetik.

**5.** Aurrealdeko eta estalkiko paramentuen azalerek kalitate oneko akabera izango dute. Hormigoi bistoko oinaldea osatuko da, eta hori zerez eratuko da, harrizko plakez, blokez, bistako adreiluz edo kalitate bertsuko materialez. Lurretik 1 metrorainoko garaiera izango du gutxienez.

Bi isurkiko akabera osatuko da; bizkar-lima, kasu horretan, kaiaren lerroaren paraleloan joango da.

Matxikorta kaiari eta SZTV_B01 bide-garraioaren azpieremuaren ibilbideari begira, SZIC_B01_ED1 eraikinaren tarteek eutsi beharko diete eraikin horren gehieneko lerrokatzeek adierazitako neurriei. SZIC_B01_ED1 eta SZTV_B01-en gaineko datu horiek “Lerrokatzeek eta sestrak” deritzon P-4 planoan ezartzen dira.

EGINBIDEA: Jasota gera dadin dokumentu hau dagokiola Bermeoko Portua Antolatzeko Plan Bereziaren 3. aldaketaren espedientearen hasierako 2. onespenari. Aldaketa hori Lurralde Plangintza, Etxebizitza eta Garraioetako sailburuaren 2022ko abenduaren 13ko Aginduaren bidez egin zen.
DILIGENCIA: Para hacer constar que el presente documento corresponde a la 2ª aprobación inicial del expediente de 3ª Modificación del Plan Especial de Ordenación del Puerto de Bermeo, llevada a cabo mediante Orden de 13 de diciembre de 2022, del Consejero de Planificación Territorial, Vivienda y Transportes.



## ART.6.1.6. HIRIGINTZA-ARAUAK: INDUSTRIA- NAHIZ MERKATARITZA-ERABILEREN AZPIEREMUA SZIC_B02. AZPIEREMU MISTOA

**1.** Plan berezi honen kalifikazio xehatuak ezarritako SZIC_B02 azpieremua Matxikorta kaiaren aurrealdean dago, barru-barruan, bai eta tren-sistema orokorraren alboan ere. Halaxe zehazten da "Kalifikazio xehatua" deritzon P-2 planoan. Azpieremu hori misto gisa definitzen da, 3.2.2 artikuluan adierazitakoaren arabera: "Azpieremu mistoak. Baimendutako erabilerak. Erabilera nagusia. Erabilera bateragarriak eta erabilera osagarriak".

Azpieremu horretan, leheneko aukeran, industri- eta merkataritza-erabilerak erabilera nagusia dela ahaztu gabe, 2/2018 Legearen 12.artikuluan ezarritakoaren arabera, Euskadiko Portuei eta Itsas Garraioarenaren barruan, erabilera horren definizioan adierazten diren jarduera guztiak baimentzen dira. Azpieremu hau, azpieremu misto bezala kalifikatzen da, eta beraz baimendutako erabilpen nagusi gisa arrantza-erabilerak onartzen da, 3.2.2 artikuluarekin bat etorriz.

**2.** Azpieremu horretan, SZIC_B02_ED1 eraikina eraiki daiteke. Horrek zera hartuko luke barne: industria- nahiz merkataritza-erabilerei lotutako jarduerak eta, hala balegokio, bulego independenteen erabiltzea – aurreko atalean zehazten da-. Horren gehieneko lerrokatzeak "Lerrokatzeak eta sestrak" deritzon P-4 planoan zehazten dira. Bertan, halaber, azaltzen da aipatutako eraikina bat edo gehiago eraikuntza beregainetan banatu daitekeela.

**2.** Azpieremu horretan, SZIC_B02_ED1 eraikina eraiki daiteke. Horrek zera hartuko luke barne: baimendutako erabilerei lotutako jarduerak eta, hala balegokio, bulego independenteen erabiltzea – aurreko atalean zehazten da-. Horren gehieneko lerrokatzeak "Eraikuntzaren lerrokatzeak eta sestrak" deritzon P-4 planoan zehazten dira. Bertan, halaber, azaltzen da aipatutako eraikina bat edo gehiago eraikuntza beregainetan banatu daitekeela.

SZIC_B02 azpieremuan zenbait eraikinek egon behar dute, eta Iparraldeko aurrealdeko fatxaden tarte bat dagokie. Fatxaden artean, baina, 5metrok egon behar du gutxienez, SZTV_B01 bide-garraioaren azpieremuaren lerrokatzeak aintzat hartuta.

**3.** Guztira honako sabai-neurri hau dauka zerak, SZIC_B02 azpieremuan eraiki daitekeen sestratik gorako zuzkidura-eraikigarritasun fisikoak: 5.199,54 m$^2$.

**4.** Azpieremu horretan eraikitako eraikinak edo eraikinek beheko solairu bat izango dute eta, gehienez ere, bi solairu arrunt. Horren teilatu-hegalaren garaiera gehienez 12 metrokoa izango da. Bestalde, aipatutako garaieraren gainean honako elementu hauek baino ezin dira gauzatu: batetik, barne hartzen dituen erabileren funtzionaltasunarentzat eraikitakoak; eta, bestetik, aipatutako erabileren adierazgarri eta ikoniko direnak. Garaierari hori puntu honetatik aurrera zenbatuko da: SZTV_B01 azpieremuaren sestretatik.

**5.** Azpieremu horretan, zenbait eraikin eraikitzeko aukera legoke. Eraikin horien aurrealdeko eta estalkiko paramentuen azalerek, hain justu, kalitate oneko akabera izango dute. Hormigoi bistoko

EGINBIDEA: Jasota gera dadin dokumentu hau dagokiola Bermeoko Portua Antolatzeko Plan Bereziaren 3. aldaketaren espedientearen hasierako 2. onespenari. Aldaketa hori Lurralde Plangintza, Etxebizitza eta Garraioetako sailburuaren 2022ko abenduaren 13ko Aginduaren bidez egin zen.
DILIGENCIA: Para hacer constar que el presente documento corresponde a la 2ª aprobación inicial del expediente de 3ª Modificación del Plan Especial de Ordenación del Puerto de Bermeo, llevada a cabo mediante Orden de 13 de diciembre de 2022, del Consejero de Planificación Territorial, Vivienda y Transportes.



oinaldea osatuko da, eta hori zerez eratuko da, harrizko plakez, blokez, bistako adreiluz edo kalitate bertsuko materialez. Lurretik 1 metrorainoko garaiera izango du gutxienez.

**6.** Zenbait lokalen fatxada tren-sistema orokorraren aurrean dago. Soinu-inpaktuaren azterketan zehaztutakoaren arabera, lokal horiek ez dute irekitzerik duen leihorik izan behar. Bestela, bertan egingo diren jarduerak ezingo dira bete gaueko ordutegian - plan berezi honen soinu-inpaktuaren azterketak halaxe ezarrita- .

## ART.6.1.7. HIRIGINTZA-ARAUAK: INDUSTRIA- NAHIZ MERKATARITZA-ERABILEREN AZPIEREMUA SZIC_B03

**1.** Plan berezi honen kalifikazio xehatuak SZIC_B03 azpieremua ezartzen du, eta hori Erroxape kaiaren aurrealdean dago, barru-barruan. Zehatza izateko, zeraren artean, SZTV_B01 bide-garraioaren azpieremua eta plan bereziak mugatzen duen Hegoaldeko ertza. Ertz horrek, era berean, Hegoaldeko muturraren aldamenean du ezpondak babesteko SZPT_B02 azpieremua. Arestian aipatutakoa “Kalifikazio xehatua” deritzon P-2 planoan zehazten da.

**2.** Azpieremu horren erabilera nagusia zera da: industria nahiz merkataritzakoak. Halaxe agertzen da 2/2018 Legearen 12. artikuluan, Euskadiko Portuei eta Itsas Garraioarenaren barruan. Edozelan ere, Portu Agintaritzaren bulego publikoen erabilera baimentzen da.

SZIC_B03_ED2 eraikinean, industria- eta merkataritza-erabilerez gain, arrantza-erabilerak ere baimentzen dira, baldin eta Portuko Administrazioak egokitzat jotzen badu erabilera horiek ezartzeko baimena ematea, Bermeoko portuko arrantza-jarduera hobeto antolatzeko.

**3.** Azpieremu horretan, honako eraikin hauek eraikitzeko baimena ematen da: SZIC_B03_ED1, SZIC_B03_ED2, SZIC_B03_ED3, SZIC_B03_ED4 eta SZIC_B03_ED5. Horiek industria- zein merkataritza-erabilerak barne hartuko lituzkete. Bestalde, horien gehieneko lerrokatzeak “Lerrokatzeak eta sestrak” deritzon P-4 planoan zehazten dira.

**3.** Azpieremu horretan, honako eraikin hauek eraikitzeko, artatzeko edota eraberritzeko baimena ematen da: SZIC_B03_ED1, SZIC_B03_ED2, SZIC_B03_ED3, SZIC_B03_ED4 eta SZIC_B03_ED5 eta SZIC_B03_ED6. Horiek industria- zein merkataritza-erabilerak barne hartuko lituzkete, artikulu honen 2. puntuan adierazitakoari men egiteari utzi gabe. Bestalde, horien gehieneko lerrokatzeak eta solairuen kopurua “Lerrokatzeak eta sestrak” deritzon P-4 planoan zehazten dira.

SZIC_B03 azpieremuan zenbait eraikinek egon behar dute, eta Iparraldeko aurrealdeko fatxaden tarte bat dagokie. Fatxaden artean, baina, 5 metro behar du egon gutxienez, SZTV_B01 bide-garraioaren azpieremuaren lerrokatzeak aintzat hartuta. Salbuespena izango da, hala balegokio, SZIC_B03_ED6 eraikinaren Ipar-ekialdeko kantoiaren gehieneko lerrokatzea. Azken horretan, dagoen eraikina ordezkatuz gero, eraikin berriak aurretik adierazitako 5 metroko tartea errespetatuko du.

EGINBIDEA: Jasota gera dadin dokumentu hau dagokiola Bermeoko Portua Antolatzeko Plan Bereziaren 3. aldaketaren espedientearen hasierako 2. onespenari. Aldaketa hori Lurralde Plangintza, Etxebizitza eta Garraioetako sailburuaren 2022ko abenduaren 13ko Aginduaren bidez egin zen.
DILIGENCIA: Para hacer constar que el presente documento corresponde a la 2ª aprobación inicial del expediente de 3ª Modificación del Plan Especial de Ordenación del Puerto de Bermeo, llevada a cabo mediante Orden de 13 de diciembre de 2022, del Consejero de Planificación Territorial, Vivienda y Transportes.



Egun dauden SZIC_B03_ED1, SZIC_B03_ED3, SZIC_B03_ED4 eta SZIC_B03_ED5 eraikinak antolamenduan dauden eraikuntzen lerrokatzeen barruan kokatzen dira. Hala ere, eraberritze-jardueren bidez, gehieneko lerrokatze haiei betiere ezarri ahal izango zaizkie artikulu honen 6. atalean azaltzen diren solairu-kopuruak eta eraikuntza-garaierak.

SZIC_B03_ED5 eraikina antolatze xehatuak proposatzen du, eta handitu daiteke lehendik dagoen eraikinak betetzen duen eraikuntza.

**4.** Guztira honako sabai-neurri hau dauka zerak, SZIC_B03 azpieremuan eraiki daitekeen sestratik gorako zuzkidura-eraikigarritasun fisikoak: 22.429,55 $m^2$.

**5.** Azpieremu horretan eraikitzekoak diren SZIC_B03_ED3, SZIC_B03_ED4, SZIC_B03_ED5 eta SZIC_B03_ED6 eraikinak, dauden eraikinen ordean edo SZIC_B03_ED4 eraikinaren kasuan, bere handitzearen emaitza gisa, beheko solairu bat izango dute eta, gehienez ere, bi solairu arrunt. Horien teilatu-hegalaren garaiera gehienez 12 metrokoa izango da. Dagoen SZIC_B03_ED1 eraikina ordezkatzeko beste eraikin bat eraikitzean, eraikin berriak beheko solairu bat izango du eta, gehienez ere, solairu arrunt bat, bere teilatu hegalaren garaiera gehienez 8 metrokoa izango dela. SZIC_B03_ED2 eraikin berriak gehienez beheko solairu bat eta beste solairu arrunt bat izango ditu, bere teilatu hegalaren garaiera gehienez 12 metrokoa izango dela. Bestalde, aipatutako garaieraren gainean honako elementu hauek baino ezin dira gauzatu: batetik, barne hartzen dituen erabileren funtzionaltasunarentzat eraikitakoak; eta, bestetik, aipatutako erabileren adierazgarri eta ikoniko direnak. Garaierari hori puntu honetatik aurrera zenbatuko da: SZTV_B01 azpieremuaren sestretatik.

**6.** SZIC_B03 azpieremuaren antolatze xehatuaren bidez, antolamenduarekin bat ez datozen elementuen erregimenarekin zehazten dira erregaia hornitzeko dauden instalazioak. Horiek ordeztuko balira, P-4 planoan (“Eraikuntzaren lerrokatzeak eta sestrak”) azaltzen den SZIC_ED3_ED2 eraikina eraikiko da.

**7.** SZIC_B03 azpieremu horretarako, plan berezi honen kalifikazio xehatuak zenbait eraikin hartzen ditu aintzat, eraikuntzaren gehieneko lerrokatzeekin. Lerrokatzeei dagokien azalpena aldatu ahal izango da xehetasun-azterketaren irudiaren bitartez. Hala ere, horrek ez du zeran eraginik, SZTV_B01 lurreko garraioaren azpieremuaren azalpenean zehaztutako horretan; hots, eraikuntzatik lerrora dagoen 5 metroko tarteari eutsi behar zaio.

### ART.6.1.8. HIRIGINTZA-ARAUAK: INDUSTRIA- NAHIZ MERKATARITZA-ERABILEREN AZPIEREMUA SZIC_B04

**1.** Plan berezi honen kalifikazio xehatuak SZIC_B04 azpieremua ezartzen du, eta hori Erroxape kaiaren ertzan dago. Halaxe zehazten da “Kalifikazio xehatua” deritzon P-2 planoan.

Azpieremu horren erabilera nagusiak zera dira: industria nahiz merkataritzakoak. Halaxe agertzen da 2/2018 Legearen 12. artikuluan, Euskadiko Portuei eta Itsas Garraioarenaren barruan. Baimentzen da, batik bat, honako jarduera hauek betetzea: arrain-manipulatze, -biltegiratze zein -salmenta zuzena ibiltzea; halaber, kontrol-lanak nahiz arrainaren salerosketa.

EGINBIDEA: Jasota gera dadin dokumentu hau dagokiola Bermeoko Portua Antolatzeko Plan Bereziaren 3. aldaketaren espedientearen hasierako 2. onespenari. Aldaketa hori Lurralde Plangintza, Etxebizitza eta Garraioetako sailburuaren 2022ko abenduaren 13ko Aginduaren bidez egin zen.
DILIGENCIA: Para hacer constar que el presente documento corresponde a la 2ª aprobación inicial del expediente de 3ª Modificación del Plan Especial de Ordenación del Puerto de Bermeo, llevada a cabo mediante Orden de 13 de diciembre de 2022, del Consejero de Planificación Territorial, Vivienda y Transportes.



**2.** Azpieremu horretan, SZIC_B04_ED1 eraikina eraiki daiteke, aurreko atalean aipatutako jarduerak barne har ditzan. Horren gehieneko lerrokatzeak P-4 “Lerrokatzeak eta sestrak” deritzon planoan zehazten dira.

**3.** Guztira honako sabai-neurri hau dauka zerak, SZIC_B04 azpieremuan eraiki daitekeen sestratik gorako zuzkidura-eraikigarritasun fisikoak: 5.484,70 $m^2$.

**4.** Azpieremu horretan eraikitako eraikinak beheko solairu bat izango du eta, hala balegokio, solairu arrunt bat. Horren teilatu-hegalaren garaiera gehienez 9 metrokoa izango da. Bestalde, aipatutako garaieraren gainean honako elementu hauek baino ezin dira gauzatu: batetik, barne hartzen dituen erabileren funtzionaltasunarentzat eraikitakoak; eta, bestetik, aipatutako erabileren adierazgarri eta ikoniko direnak. Garaierari buruz, azkenik, puntu honetatik aurrera zenbatuko da: Erroxapeko kaiaren sestrak eta eraikin aurrearen plano bertikalek bat egiten dutenetik.

**4.** SZIC_B04_ED1 eraikinak beheko solairu bat izango du eta, hala balegokio, solairu arrunt bat. Horren teilatu-hegalaren garaiera gehienez 9 metrokoa izango da. Bestalde, aipatutako garaieraren gainean honako elementu hauek baino ezin dira gauzatu: batetik, barne hartzen dituen erabileren funtzionaltasunarentzat eraikitakoak; eta, bestetik, aipatutako erabileren adierazgarri eta ikoniko direnak. Garaierari buruz, azkenik, puntu honetatik aurrera zenbatuko da: Erroxapeko kaiaren sestrak eta eraikin aurrearen plano bertikalek bat egiten dutenetik.

**5.** Aurrealdeko eta estalkiko paramentuen azalerek kalitate oneko akabera izango dute. Hormigoi bistoko oinaldea osatuko da. Akaberak bi isurkikoak izango dira, eta gorri-kolorekoak; hain zuzen, dagoen oraingo eraikinaren berdin-berdinak.

**6.** Dagoen SZIC_B04_ED1 eraikina ordeztuko balitz, eraikin berriaren eta Erroxape kaiaren arteko tartea mantenduko da gaur egungo bere horretan, hots, “Eraikuntzaren lerrokatzeak eta sestrak” deritzon P-4 planoan egun agertzen den bezala.

### ART.6.1.9. HIRIGINTZA-ARAUAK: INDUSTRIA- NAHIZ MERKATARITZA-ERABILEREN AZPIEREMUA SZIC_B05

**1.** SZIC_B05 azpieremua zeraren bukaera da, eraikuntzarik gabeko industria- nahiz merkataritza-azpieremuen azalerarena. Hori irudi-marra berria aldatzeagatik sortzen da; irudi-marrak Bermeoko eta Mundakako udal barrutiak bereizten ditu. Hori guztia plan berezi honetan biltzen da.

**2.** Horren sorrerari zein konfigurazioari begira, azpieremu horretan ez dago ezer eraikitzerik, eta bere azalera SZIC_B04 azalerari atxikiko zaio, hots, aldamenean duen eraikuntzarik gabeko azalerari, hau da, Mundakako udal mugen barruan dagoen SZIC_M02 azpieremuari. Azalera atxikitzeko orduan, gainazal-akabera tratamendu berari eutsiko zaio.

### 6.1.10. ARTIKULUA. SZIC_B06 INDUSTRIA- ETA MERKATARITZA-ERABILEREN AZPIEREMUKO HIRIGINTZA-ARAUAK. AZPIEREMU MISTOA

EGINBIDEA: Jasota gera dadin dokumentu hau dagokiola Bermeoko Portua Antolatzeko Plan Bereziaren 3. aldaketaren espedientearen hasierako 2. onespenari. Aldaketa hori Lurralde Plangintza, Etxebizitza eta Garraioetako sailburuaren 2022ko abenduaren 13ko Aginduaren bidez egin zen.
DILIGENCIA: Para hacer constar que el presente documento corresponde a la 2ª aprobación inicial del expediente de 3ª Modificación del Plan Especial de Ordenación del Puerto de Bermeo, llevada a cabo mediante Orden de 13 de diciembre de 2022, del Consejero de Planificación Territorial, Vivienda y Transportes.

**1.** Plan berezi honen kalifikazio xehatuak ezarritako SZIC_B06 azpieremua Erroxape kaiaren itsaslabarraren aurrealdean dago, eta arrantzaleen kofradiaren SZIC_B04_ED1 eraikinaren handitze berriari atxikitzen zaio, Erroxape kaiaren itsaslabarraren aurrealdearen lerrokadurari eta atzeko fatxadaren lerrokadurari eutsiz, P-4 “Eraikuntzaren lerrokadurak eta sestrak" planoan adierazten den bezala. Azpieremu hori misto gisa definitzen da, 3.2.2 artikuluan adierazitakoaren arabera: "Azpieremu mistoak. Baimendutako erabilerak. Erabilera nagusia. Erabilera bateragarriak eta erabilera osagarriak".

Lehen aukeran industria- eta merkataritza-erabilerak ezartzeari kalterik egin gabe, hala nola azpieremu honetako erabilera nagusia, Euskal Autonomia Erkidegoko portuen eta itsas garraioaren 2/2018 Legearen 12. artikuluan ezarritakoaren arabera, erabilera horren definizioan adierazitako jarduera guztiak baimentzen dira. Azpieremu hori misto gisa kalifikatuta dagoenez, arrantza-erabilerak ere onartzen dira erabilera baimendu nagusitzat, 3.2.2 artikuluan adierazitakoarekin bat etorriz.

**2.** Azpieremu honetan SZIC_B06_ED1 eraikina eraikitzeko baimena ematen da, baimendutako erabileren jarduerak hartzeko. Gehieneko lerrokadurak P-4 "Eraikuntzaren lerrokadurak eta sestrak" planoan zehazten dira.

**3.** SZIC_B06 azpieremuan eraiki daitekeen sestra gaineko gehieneko zuzkidura-eraikigarritasun fisikoa guztira 2.035,08 $m^2$-ko mugara iristen da.

**4.** Azpieremu horretan eraikiko den eraikinak, gehienez, beheko solairu bat eta solairuko solairu bat izango ditu, eta teilatu-hegalaren gehieneko altuera 11 metrokoa izango da. Aipatutako altueraren gainean, Erroxapeko kaiaren sestretatik abiatuta zenbatuta, barruan kokatutako erabileren funtzionaltasunerako beharrezkoak diren eraikitako elementuak eta baimendutako erabileren elementu ikoniko eta adierazgarri gisa eratzen direnak baino ez dira baimenduko.

**5.** Azpieremu horretan eraiki daitezkeen eraikineko edo eraikinetako fatxadetako paramentuen eta estalkiaren gainazalek lehen kalitateko materialen akabera izango dute, Lonjako eraikineko fatxadetako eta estalkietako elementu arkitektonikoekin eta horien handitzearekin bat datozenak. Horrela, halako moldez antzeko akaberak dituen eta arkitekturaren ezaugarri formal, egoki eta koordinatuak dituen multzo arkitektoniko bat eratuko da.

### ART.6.1.11. HIRIGINTZA-ARAUAK: INDUSTRIA- NAHIZ MERKATARITZA-ERABILEREN AZPIEREMUA SZIC_M01

**1.** Plan berezi honen kalifikazio xehatuak SZIC_M01 azpieremua ezartzen du, eta hori Erroxape-Mundaka kaiaren aurrealdean dago. Hori SZCP_M01 azpieremuak eta SZTV_M01 bide-garraioaren azpieremuak banatzen dute; horrek hizpide den azpieremuaren perimetro osoa inguratzen du. Aurreko guztia “Kalifikazio xehatua” deritzon P-2 planoan zehazten da.

Azpieremu horren erabilera nagusiak zera dira: industria nahiz merkataritzakoak. Halaxe agertzen da 2/2018 Legearen 12. artikuluan, Euskadiko Portuei eta Itsas Garraioarenaren barruan. Baimentzen dira, halaber, bulego independenteak erabiltzea, betiere hartutako zatiak azpieremuko gehieneko eraikigarritasunaren % 15 gainditzen ez badu.

**2.** Azpieremu horretan, honako eraikin hauek eraikitzeko baimena ematen da: SZIC_M01_ED1 eta SZIC_M01_ED2. Horrek zera hartuko luke barne: industria- nahiz merkataritza-erabilerei lotutako jarduerak eta, hala balegokio, bulego independenteen erabiltzea – aurreko atalean zehazten da-. Horren gehieneko lerrokatzeak "Eraikuntzaren lerrokatzeak eta sestrak" deritzon P-4 planoan zehazten dira.

Edozelan ere, SZTV_M01 azpieremuari lotutako tarteei eutsiko zaie. Halaxe zehazten da aurretik aipatutako P-4 planoan; hain zuzen, gehieneko lerrokatzeen harian ezarritakoan.

Azpieremu horretan bi eraikin daude, ikusi bezala. Bi horiek erkide duten fatxada eraikuntza-proiektuetan zehaztuko da hala balegokio; nolanahi ere, bi eraikinen fatxaden artean gutxienez 2 metroko tartea utzi beharko da. Era berean, bi eraikinen gehieneko eraikuntza-lerrokatzeak zehazteko aukerarik balego, hori xehetasun-azterketaren irudiaren bitartez bete ahal izango da. Betiere SZTV_M01 azpieremuari dagokionari eutsi beharko zaio.

**3.** Guztira honako sabai-neurri hau dauka zerak, SZIC_M01 azpieremuan eraiki daitekeen sestratik gorako zuzkidura-eraikigarritasun fisikoak: 9.070 $m^{2.}$

**4.** Azpieremu horretan eraikitako eraikinek beheko solairu bat izango dute eta, gehienez ere, solairu arrunt bat. Horren teilatu-hegalaren garaiera gehienez 8 metrokoa izango da. Azpieremu honetako eraikinek, gehieneko lerrokadurak eta gehieneko eraikigarritasuna errespetatuz, beheko solairua eta sestra gaineko bi solairu izan ditzakete, gehienez ere 12 metroko altuerarekin, oinplanoko okupazioaren % 25ean gehienez ere.

Aipatutako altueren gainean, SZTV_M01 azpieremuko sestretatik abiatuta zenbatuta, soilik honako hauek baimentzen dira: barnean kokatutako erabileren funtzionaltasunerako beharrezkoak diren eraikitako elementuak eta baimendutako erabileren elementu ikoniko eta adierazgarri gisa eratzen direnak.

### ART.6.1.12. HIRIGINTZA-ARAUAK: INDUSTRIA- NAHIZ MERKATARITZA-ERABILEREN AZPIEREMUA SZIC_M02

**1.** Plan berezi honen kalifikazio xehatuak SZIC_M02 azpieremua ezartzen du, eta hori Erroxapeko kaiako barnealdean dago. SZIC_M01 industria- nahiz merkataritza-azpieremuak, SZTV_M01 bide-garraioaren azpieremuak eta SZCP_M01 portu-merkataritza-erabileren azpieremuak bereizten dute horren espazio-eremua. Aldamenean du Hego-ekialdeko mugan SZPT_M01 babes-ezpondaren azpieremua; halaxe zehazten da hori "Kalifikazio xehatua" deritzon P-2 planoan.



EGINBIDEA: Jasota gera dadin dokumentu hau dagokiola Bermeoko Portua Antolatzeko Plan Bereziaren 3. aldaketaren espedientearen hasierako 2. onespenari. Aldaketa hori Lurralde Plangintza, Etxebizitza eta Garraioetako sailburuaren 2022ko abenduaren 13ko Aginduaren bidez egin zen.
DILIGENCIA: Para hacer constar que el presente documento corresponde a la 2ª aprobación inicial del expediente de 3ª Modificación del Plan Especial de Ordenación del Puerto de Bermeo, llevada a cabo mediante Orden de 13 de diciembre de 2022, del Consejero de Planificación Territorial, Vivienda y Transportes.

EGINBIDEA: Jasota gera dadin dokumentu hau dagokiola Bermeoko Portua Antolatzeko Plan Bereziaren 3. aldaketaren espedientearen hasierako 2. onespenari. Aldaketa hori Lurralde Plangintza, Etxebizitza eta Garraioetako sailburuaren 2022ko abenduaren 13ko Aginduaren bidez egin zen.
DILIGENCIA: Para hacer constar que el presente documento corresponde a la 2ª aprobación inicial del expediente de 3ª Modificación del Plan Especial de Ordenación del Puerto de Bermeo, llevada a cabo mediante Orden de 13 de diciembre de 2022, del Consejero de Planificación Territorial, Vivienda y Transportes.



Azpieremu horren erabilera nagusiak zera dira: industria nahiz merkataritzakoak. Halaxe agertzen da 2/2018 Legearen 12. artikuluan, Euskadiko Portuei eta Itsas Garraioarenaren barruan. Baimentzen dira, halaber, bulego independenteak erabiltzea, betiere hartutako zatiak azpieremuko gehieneko eraikigarritasunaren % 15 gainditzen ez badu.

**2.** Azpieremu horretan, honako eraikin hauek artatzeko edota zabaltzeko baimena ematen da: SZIC_M02_ED1, SZIC_M02_ED2, SZIC_M02_ED3, SZIC_M02_ED4, SZIC_M02_ED5, SZIC_M02_ED6 eta SZIC_M02_ED7. Horrek zera hartuko luke barne: industria- nahiz merkataritza-erabilerei lotutako jarduerak eta, hala balegokio, bulego independenteen erabiltzea – aurreko atalean zehazten da-. Horren gehieneko lerrokatzeak “Eraikuntzaren lerrokatzeak eta sestrak” deritzon P-4 planoan zehazten dira.

SZIC_M02_ED1, SZIC_M02_ED2, SZIC_M02_ED3, SZIC_M02_ED4, SZIC_M02_ED5 eta SZIC_M02_ED6 eraikinek biltzen dituzte antolamenduan dauden eraikuntzen lerrokatzeak. Hala ere, ezarriko dira betiere solairu-kopuruen eta eraikuntza-garaieren gehieneko lerrokatzeak, zeinak artikulu honen 4.atalean azaltzen batira.

SZIC_M02_ED7 eraikina antolatze xehatuak proposatzen du, eta handitu daiteke lehendik dagoen eraikinak betetzen duen eraikuntza. Eraikin horren erabilera portuko zerbitzuena da, Euskal Autonomia Erkidegoko Portuko Administrazioaren titulartasunekoa.

**3.** Guztira honako sabai-neurri hau dauka zerak, SZIC_M02 azpieremuan eraiki daitekeen sestratik gorako zuzkidura-eraikigarritasun fisikoak: 12.828,40 $m^2$.

**4.** Azpieremu horretan eraikitako eraikinak beheko solairu bat izango du eta, gehienez ere, solairu arrunt bakarra. Horren teilatu-hegalaren garaiera gehienez 8 metrokoa izango da. Azpieremu honetako eraikinek, gehieneko lerrokadurak eta gehieneko eraikigarritasuna errespetatuz, beheko solairua eta sestra gaineko bi solairu izan ditzakete, gehienez ere 12 metroko altuerarekin, oinplanoko okupazioaren % 25ean gehienez ere.

Bestalde, aipatutako garaieraren gainean honako elementu hauek baino ezin dira gauzatu: batetik, barne hartzen dituen erabileren funtzionaltasunarentzat eraikitakoak; eta, bestetik, baimendutako erabileren adierazgarri eta ikoniko direnak. Garaierari hori puntu honetatik aurrera zenbatuko da: SZTV_M01 azpieremuaren sestretatik.

**5.** SZIC_M02 azpieremu horretarako, plan berezi honen kalifikazio orokorrak zenbait eraikin hartzen ditu aintzat, eraikuntzaren gehieneko lerrokatzeekin. Lerrokatzeei dagokien azalpena aldatu ahal izango da xehetasun-azterketaren irudiaren bitartez. Hala ere, ezingo da murriztu zerako tartea, eraikin berrien eta gehieneko lerrokatzeek ezarritakoaren artekoa -gehieneko lerrokatzeak plan berezi honen kalifikazio xehatuan azaltzen dira-.

## ART.6.1.13. HIRIGINTZA-ARAUAK: KOMUNITATE-ERABILERA PUBLIKOEN AZPIEREMUA SZUC_B01. AZPIEREMU MISTOA

EGINBIDEA: Jasota gera dadin dokumentu hau dagokiola Bermeoko Portua Antolatzeko Plan Bereziaren 3. aldaketaren espedientearen hasierako 2. onespenari. Aldaketa hori Lurralde Plangintza, Etxebizitza eta Garraioetako sailburuaren 2022ko abenduaren 13ko Aginduaren bidez egin zen.
DILIGENCIA: Para hacer constar que el presente documento corresponde a la 2ª aprobación inicial del expediente de 3ª Modificación del Plan Especial de Ordenación del Puerto de Bermeo, llevada a cabo mediante Orden de 13 de diciembre de 2022, del Consejero de Planificación Territorial, Vivienda y Transportes.



**1.** Plan berezi honen kalifikazio xehatuak SZUC_B01 azpieremua ezartzen du, eta hori hemen dago: plan bereziaren Iparraldeko muturrean. Iparraldeko aldean, aurrean dauka babes bereziko SGP-M_B02 sistema-orokorraren eremua. Bestalde, Ekialdeko nahiz Hegoaldeko aldeotan, aldamenean du SGTV_B01 bide-garraioaren sistema orokorra eta, Mendebaldeko aldean, Bermeoko Hirigune Historikoko hiri-lurzorua. Aurreko guztia "Kalifikazio xehatua" deritzon P-2 planoan zehazten da. Azpieremu hori misto gisa kalifikatzen da, 3.2.2 artikuluan adierazitakoaren arabera: "Azpieremu mistoak. Baimendutako erabilerak. Erabilera nagusia. Erabilera bateragarriak eta osagarriak".

**2.** Azpieremu horren erabilera nagusiak zera dira: komunitate-erabilera publikoak. Nolanahi ere, industria- nahiz merkataritza-erabilpenak nagusia den erabileratzat jo daitezke. Halaxe agertzen da 2/2018 Legearen 12. artikuluan, Euskadiko Portuei eta Itsas Garraioarenaren barruan; bertan, hain zuzen, baimentzen dira erabilera horien azalpenean adierazitako jarduera guztiak. Berebat, baimentzen da jabari- eta erabilera-publikoko espazio libreak baliatzea; hain justu, proiektatutako eraikinaren estalki lauan. Hori oinezkoentzako plaza bat osatzeko jaio da, hots, Hirigune Historikoko eta Baztarre plazako tokiko oinezko-sistemak uztartzeko.

**3.** "Lerrokatzeak eta sestrak" P-4 planoan zehazten diren gehieneko lerrokatzeen arabera, azpieremu horretan SZUC_B01_ED1 eraikina eraiki daiteke. Horrek honako xede hau dauka: euskarri eraikia behar duten erabileren jarduerak barne hartzea – erabilerak aurreko atalean zehazten dira-. Horrekin batera, zera egin daitezke, aipatutako eraikinaren estalkian plaza publikoa urbanitzeko lanak.

**4.** Proiektatutako eraikinak, lehentxeago aipatutakoak, beheko solairu bat izango du, eta, gehienez ere, bi solairu arrunt. Hori guztia Frantxua kaiako sestratik aurrera bete beharko da. Eraikiko diren solairu-garaierei dagokienez, eraikinaren estalkiarekin kotari heltzeko aukera eskaini beharko dute; horrela, kota hori lagun, itsasoari irekitako plaza egin ahalko da. Baztarrekoa handituko da, eta Hirigune Historikoko hiri-espazioaren kalitatea hobetu.

**5.** Guztira honako sabai-neurri hau dauka zerak, SZUC_B01 azpieremuan eraiki daitekeen sestratik gorako zuzkidura-eraikigarritasun fisikoak: 12.450,12 $m^2$.

**6.** Baimentzen diren erabilerak nola antolatzen diren xehetasun-azterketan ezarriko da; azterketa horrek biribilduko du SZUC_B01 azpieremuaren antolamendua. Betiere, eutsi beharko zaie gehieneko lerrokatzeei, gehieneko zuzkidura-eraikigarritasun fisikoari eta lehen aipatutako gehieneko solairu-kopuruari.

**7.** Eraikuntza-solairuen garaiera libre orientagarriek honako neurri hau izango dute: beheko solairuan, 3,50 metro; gainerako solairuetan, 2,80 metro. Horrela, lortu ahalko da eraikinaren estalki lauek Baztarre plazako sestrei heltzea, batetik, eta dagoen diseinuarekin egokiro lotzea, bestetik. Bestalde, garaiera horiek xehetasun-azterketan zehaztu beharko dira.

**8.** Xehetasun-azterketan, zehaztuko dira aurretik aitatutako erabilera nagusi eta bateragarrien solairu-kopurua, garaiera-kopurua eta antolatze xehatua. Horrekin batera, zehaztuko dira estetikari nahiz osaerari lotutako gainerako alderdiak eta tasunak, hain zuzen, eraikinen zein instalazioen urbanizatze-obrei dagozkienak. Halaber, bestelako hiri-obra zein -elementuak zehaztuko dira; preseski, plan

EGINBIDEA: Jasota gera dadin dokumentu hau dagokiola Bermeoko Portua Antolatzeko Plan Bereziaren 3. aldaketaren espedientearen hasierako 2. onespenari. Aldaketa hori Lurralde Plangintza, Etxebizitza eta Garraioetako sailburuaren 2022ko abenduaren 13ko Aginduaren bidez egin zen.
DILIGENCIA: Para hacer constar que el presente documento corresponde a la 2ª aprobación inicial del expediente de 3ª Modificación del Plan Especial de Ordenación del Puerto de Bermeo, llevada a cabo mediante Orden de 13 de diciembre de 2022, del Consejero de Planificación Territorial, Vivienda y Transportes.



berezi honen antolatze xehatuan adierazitakoak -Lurzoruari eta Hirigintzari buruzko 2/2006 Legearen 73.2.c) artikuluan xehatzen dira-.

## ART.6.1.14. HIRIGINTZA-ARAUAK: KOMUNITATE-ERABILERA PUBLIKOEN AZPIEREMUA SZUC_B02

**1.** Plan berezi honen kalifikazio xehatuak SZUC_B02 azpieremua ezartzen du, eta hori hemen dago: plan bereziaren Hego-mendebaldeko muturrean. Halaxe aipatzen da “Kalifikazio xehatua” deritzon P-2 planoan.

**2.** Azpieremu horren erabilera nagusiak zera dira: komunitate-erabilera publikoak. Alabaina, industria- nahiz merkataritza-erabilpenak bateragarri den erabileratzat jo daitezke. Horiek, eta batik bat azken erabilerak, ontzi txikien konponketa txikiak egiteko baliatzen dira. Aurreko guztia 2/2018 Legearen 12. artikuluan ezartzen da, hots, Euskadiko Portuei eta Itsas Garraioarenaren barruan. Baimentzen dira erabilera horren azalpenean adierazitako jarduera guztiak.

Komunitate-ekipamenduaren erabileren baitan, baimentzen dira hotel nahiz komunitate-ekipamendura lotutako erabilpenak; hots, Bermeoko hiri-antolamenduko plan orokorraren 3.7.8 artikuluan zehaztuta-koak.

**3.** Bi elementu hauen artean dagoen lotura ezartzeko, hau da, komunitate-erabilera publikoen erabilpen nagusiaren eta industria- zein merkataritza-erabileren erabilpen bateragarriaren artean –batik bat ontzi txikien konponketa txikientzako jarduerak-, zera ezartzen da: gutxienez azpieremu horretarako zehaztutako zuzkidura-eraikigarritasun fisikoaren % 60 komunitate-erabilera publikoentzat baliatuko dela. Gainerakoa, bestalde, bestelako industria- nahiz merkataritza-erabilpenentzat, ontzi txikiak konpontzeko jarduerekin batean.

**4.** Proiektatutako eraikina honen bitartez zehazten da: SZUC_B02_ED1 eraikuntzaren gehieneko lerrokatzeen bidez – horiek “Eraikuntzaren lerrokatzeak eta sestrak” P-4 planoan ezartzen dira-. Beheko solairua baino ez da eraiki ahal izango, eta teilatu-hegalaren garaiera gehienez 7 metrokoa izango da.

**5.** Portu-espaziorantz orientatutako fatxadak hauxe behar du izan: daukan azaleraren % 50ean gutxienez, azalera irekiak eta beiraz hornituak.

Lehentasuna izango du fatxadetako paramentuen azaleraren akabera aireztatutako fatxada batez birgaituta egoteak; horretarako kanpo-orriak kalitate oneko harri- edo zeramika-materialez sortuta egon beharko du. Hala ere, kalitate bertsuko beste metal-materialak eta birgaitutako fatxadak balia daitezke.

## ART.6.1.15. HIRIGINTZA-ARAUAK: BIDE-GARRAIOAREN AZPIEREMUAK SZTV

EGINBIDEA: Jasota gera dadin dokumentu hau dagokiola Bermeoko Portua Antolatzeko Plan Bereziaren 3. aldaketaren espedientearen hasierako 2. onespenari. Aldaketa hori Lurralde Plangintza, Etxebizitza eta Garraioetako sailburuaren 2022ko abenduaren 13ko Aginduaren bidez egin zen.
DILIGENCIA: Para hacer constar que el presente documento corresponde a la 2ª aprobación inicial del expediente de 3ª Modificación del Plan Especial de Ordenación del Puerto de Bermeo, llevada a cabo mediante Orden de 13 de diciembre de 2022, del Consejero de Planificación Territorial, Vivienda y Transportes.



**1.** Plan berezi honen kalifikazio xehatuak SZTV bide-garraiorako azpieremuak ezartzen ditu. Haien azalerak xede honekin jaio dira: ibilgailuak zein oinezkoak ibiltzeko eta ibilgailuak nahiz oinezkoak batera ibiltzeko bide azpiegiturei eustea.

**2.** Bide-garraioaren azpieremuak "Kalifikazio xehatua" deritzon P-2 planoan zehazten dira. Azpieremu horiek duten lotura ondoren agertzen da:

| SZTV | BIDE GARRAIO AZPIZONA<br>SUBZONA DE TRANSPORTE VIARIO | | 46.949,42 m² |
|---|---|---|---|
| | SZTV_B01 | 31.164,35 m² | T.M. BERMEO |
| | SZTV_B02 | 2.039,35 m² | T.M. BERMEO |
| | SZTV_B03 | 5.119,74 m² | T.M. BERMEO |
| | SZTV_M01 | 6.913,07 m² | T.M. MUNDAKA |
| | SZTV_M02 | 1.712,90 m² | T.M. MUNDAKA |

**3.** SZTV azpieremuak zehazten dira, eta horiek zenbait azalera dituzte. Azalera horiek jaio dira, hain zuzen, ibilgailuak ibiltzeko, oinezkoak ibiltzeko eta, balegokio, ibilgailuak nahiz oinezkoak batera ibiltzeko. Alabaina, ez dira bereizten batentzat edo bestearentzat diren azalerak: esate baterako, harbideak, espaloiak zein azalera mistoak; halaber, oinezkoentzako pasabideak nahiz bide-espazioa antolatzeko beste zeinahi elementu.

**4.** SZTV bide-garraioko azpieremuek espazio batzuk dituzte. Espazio horien funtzionaltasuna eta tratamendua fisikoki zehazteko lana honen bidez egingo da: portu-obren proiektuen bitartez. Lehentxeago, portuko barnealdean dauden portu-trafikoari lotutako premiak aztertuko dira; era berean, Bermeoko portuko kanpoaldera sartzeko dauden beharrak aztertuko dira, portu-trafikoa aintzat hartuz.

## ART.6.1.16. HIRIGINTZA-ARAUAK: EZPONDAK BABESTEKO AZPIEREMUAK SZPT

**1.** Ezpondak babesteko azpieremuek azalera bat dute. Azalera horien helburua zera da: Bermeoko portua antolatzean, gainerako azpieremuetan aurreikusitako transformazioei azkena ematea. Lan hori azkentzeko, azalera horiek eraikuntzarik gabeko espazio gisa jo, eta horien mantentze-lanak betetzen dira.

**2.** Azpieremu horietan, ez dago ezer eraikitzerik, eta haien azalera gune berdeko urbanizazio biguntzat hartuko da. Hala ere, naturalizatzeko asmoz lan egingo duten obrak baimentzen dira, zera betetzeko beharrezkoak badira, egonkortasunari lotutako mantentze-lanak edota paisaiari lotutako kanpo-akaberaren hobetze-lanak.

**3.** Ezpondak babesteko azpieremuen lotura hemen azaltzen da: "Kalifikazio xehatua" deritzon P-2 planoan. Azpieremu horiek duten lotura ondoren agertzen da:

**SZPT** MAGALEN BABESERAKO AZPIZONA
SUBZONA DE PROTECCIÓN DE TALUDES — 15.172,84 m²

| | | | |
|---|---|---|---|
| SZPT_B01 | 716,05 | m² | T.M. BERMEO |
| SZPT_B02 | 983,79 | m² | T.M. BERMEO |
| SZPT_B03 | 6.953,15 | m² | T.M. BERMEO |
| SZPT_M01 | 2.400,65 | m² | T.M. MUNDAKA |
| SZPT_M02 | 4.119,20 | m² | T.M. MUNDAKA |

Bilbo, 2021ko Maiatza
ARKITEKTUAK



Izpta.: Anton Agirregoitia Aretxabaleta - Iñaki Peña Gallano - Ibon Pascual Arechavaleta



EGINBIDEA: Jasota gera dadin dokumentu hau dagokiola Bermeoko Portua Antolatzeko Plan Bereziaren 3. aldaketaren espedientearen hasierako 2. onespenari. Aldaketa hori Lurralde Plangintza, Etxebizitza eta Garraioetako sailburuaren 2022ko abenduaren 13ko Aginduaren bidez egin zen.
DILIGENCIA: Para hacer constar que el presente documento corresponde a la 2ª aprobación inicial del expediente de 3ª Modificación del Plan Especial de Ordenación del Puerto de Bermeo, llevada a cabo mediante Orden de 13 de diciembre de 2022, del Consejero de Planificación Territorial, Vivienda y Transportes.